



241. zenbakia

· EKAINA 2024 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



ANARI – Inmolazioa (Giza zarata – 2024)

Telebista aurrean,
iluntzeko albistegia.
Besteen minen
antologia.
Sakelekoan
zarata eta mimo soziala,
etenik gabe.

Dena batera,
leku eta une bakarra.
Selfiak, amaierarik ez
duen gerra,
sumendiak,
feminizidioa,
etenik gabe.

Munduari su emateko
gogo sartzen zaizu,
balkoira atera eta
zigarro bat pizten duzu,
distantzia estetetikoa bat,
eta bertan geratu.
Lisabören "Ezarian"
jartzen duzu.

Zerua garbi dago,
eta izarrarteko
zabor espazialaren
atzean
artizarrak oraindik hor
dirauela ikustean
lasaitzen zara.

Aspaldi ulertu zenuen,
bizirik ateratzeko
aukera gutxi dago hemen.

Jakinarazpenak
desgaitu eta
ohera sartzen zara,
errendituta,
hitzaren zentzurik



Hautatu



3 hedabide

komunikazioa

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera



pulunpe

amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok bat elkarte eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Basabauruko BTT martxan, atsedenean. Egilea, @julenurtxegir

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira ekainaren gan bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Mendialdeko ekoizleak*

07

Ingurumena. *Enarak*

08

Kronika. *Denok bat jubilatuen elkarte*

10

Albisteak.

16

Elkarriketa. *Aritz Gorostiaga bideogilea*



20

Ekimenak. *Auzo-zaintza Imotzen*

22

Kronika. *Ultzamako eskolako gurasoak. Ezpela euskara taldea*

24

Aspaldiko kontuak. *Berueteko lapurrak (III)*

27

Ardo Frexkoa. *Ene buruarekin hizketan*

28

Kirola. *Lanzko frontenis txapelketa*

30

Zer ikusi *amezti.eus-en Maiatza*

32

Zer irakurri. *Ultzamako liburutegia*

34

Jaiotzak eta heriotzak. *Apirila*



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Mendialdeko elikagaiak

Eskualdeko zazpi ekoizle, Mendialdeko elikagaien gidan

Urteak daramatza Cederna Garalur landa garapenerako elkarteak elikaduraren eta lehen sektorearen inguruko lanketa egiten, elikadura osasuntsu eta kontsumo jasangarriago baterako bidea egiten. Bide horretan, beste egitasmo bat gauzatu du orain: Mendialdeko elikagaien gida. Imozko eta Basaburuko saltokietan eskuragarri dago, eta digitalki ere bai, Cederna Garalurren webgunean.

2019an egin zuten Mendialdeko elikadura proiektua martxan jartzeko teknikariaren kontratazioa, momentu hartan eskualde zabaleko hamar udalen eta Cederna Garalurren artean. Hitzarmen hartan helburu argia markatu zuten: lehen sektorea bultzatzea eta elikadura osasuntsu eta jasangarri baterantzko pausoak ematea. 2020an hasi zen Amaiur Unzueta teknikari lanetan, eta geroztik, hamaika ekimen jarri dituzte martxan. "2020an prozesu parte-hartzailea egin genuen herriz herri, jarritako helburua nola sustatu genezakeen aztertzeke, eta orduan atera zen gida edo katalogoaren ideia", azaldu du teknikariak.

Urteotan, baina, beste egitasmo batzuei lehentasuna ematea erabaki zuten, estrategikoki

garrantzitsuagoak zirela pentsatzen zutelako. Zein diren egitasmo horiek? Ezagunak zaizkigu: Azoka ibiltaria, Habelarte baserritarren elkarteak, Mendialdeko Elikadura Mahaia... "Dena den, gida argitaratu aurretik bi egin behar garrantzitsu ere bagenituen. Batetik, ze irizpide erabiliko genituen gida sortzeko, eta, bestetik, Mendialdeko eskualde zabal horretan ze udalerri sartuko ziren erabakitzea", azaldu du Unzuetak.

Izan ere, Cederna Garalurrek eta garapen agenteak 12 udalerriri ematen diete zerbitzua, baina elikadura proiektuaren kasuan, Nafarroako Gobernuak zehaztutako mapa lokalean hamar udalerri sartzen dira: Araitz, Arano, Areso, Basaburua, Betelu, Goizueta, Imotz,

Mendialdeko 26 ekoizle hartu dute parte gidaren lehen argitalpenean

Larraun, Leitza eta Lekunberri. Mapa lokalaren definizioarekin, gidan sartuko ziren udalerriek ere zehaztuta gelditu ziren. Behin hori eginda, ekoizleei begirako irizpideak zehaztea soilik falta zitzaien.

Bertakoa eta bertako saltokietan tokia duena

Gidan sartuko ziren produktuen eta ekoizleen irizpideak zehazteko, elikadura sistemako zenbait eragile deitu zituzten Cederna Garalurtik. Batetik, ordurako martxan zegoen Mendialdeko Elikadura Mahaia zegoen, bertan parte hartzen duten udal ordezkariekin, Habelarte baserritar agroekologikoen elkarteak eta Leitzeko Kontsumo Taldeak ere parte hartu zuten. "Marko horretan erabaki ziren gidan parte hartu ahal izateko ekoizleek eta produktuek bete behar zituzten irizpideak. Urtarrilean izan zen hori".

Bi irizpide adostu zituzten: bertako produktuak izatea, alegia, Mendialdeko eskualde zabalean ekoiztiak izatea; eta, gutxienez, eskualde horretako



2020an hasi zen Amaiur Unzueta elikadura teknikaria Cederna Garalurren



“ Bertako produktuak saltzen dituzten denda eta jatetxeendako identifikatzailea ere sortu dute ”

saltokiren batean saltzea produktua. “Horrekin, alde batetik, lehen sektoreko ekoizleak eta eraldatzaileak ikustaraztea zen asmoa, baina baita merkaturatze bidelaburrak bultzatzea ere”, azaldu du teknikariak. Aipatu bezala, ekoizleek ez ezik, eraldatzaileek ere izan dute gidan parte hartzeko aukera; haien lehengaiak ekoitzi ez baina eraldaketan aritzen diren horiek, Mendialdeko dendaren batean haien produktua saltzen dutenak, ageri direla gidan.

Katalogoaren lehen bertsio honetan 26 ekoizleek hartu dute parte, guztira. “Deialdi irekia egin genuen, behintzat parte hartu nahi zuena

jakinaren gainean egon zedin”, aipatu du Unzuetak. Nabarmentzen duenez, azoka ibiltariaren eta beste dinamika batzuen bidez saretze lana eta datu bilketa egina dute dagoeneko, eta horrek gauzak franko erraztu dizkie. “Behin zerrenda eginda, ekoizle eta eraldatzaileei fitxa bat betetzeko eskatu genien, haien datuekin, ekoizten eta eraldatzen dituzten produktuekin, urterokotasunarekin, ekoizle eta eraldatzaile den edo eraldatzaile bakarrik...”.

Dendei eta ostalaritzari ere aitortza

Katalogoan parte hartu duten 26 ekoizleek askotariko produktuak ekoizten dituzte: esnekiak, haragia, hestebeteak, ezti, sagardoa eta sagar zukua, barazki freskoak, arrautzak, ogia, taloak, txokolata... Hala ere, esanguratsua da Mendialdeko eskualde zabal horretan esnekiek eta gaztak duten presentzia nabarmena. “Ikusi dugu produktu aldetik gehienbat esnekiak ditugula, gazta batez ere,

eta haragi gorria ere bai”, adierazi du teknikariak. Azaldu du, ezarritako irizpideen bueltan lanean ari diren ekoizle guztiek edo ia guztiek hartu dutela parte; badira ekoizle gehiago eskualdean, baina, horietako zenbaitek ez ditu merkaturatze bide laburrak erabiltzen.

Aipatzekoa da, bestetik, gidak eskualdean bertako produktuak saltzen dituzten saltoki eta ostatuei ere tokia eskaini diela gidak. Ekoizle bakoitzaren orrialdeko beheko partean, bere produktuak zein establezimendutan aurkitu daitezkeen ere ageri da. “Gidak erakutsi digu bertako saltokiak ere inplikatura daudela bertako produktuak saltzearekin”, gaineratu du teknikariak. Saltoki eta jatetxe horiei identifikatzaile moduko bat ere banatu diete, bertako produktuak saltzen dituzten apalategietan edo ostatuko atean jartzeko pegatina eta karteltxoak. “Identifikatzaile moduko bat da, ‘Mendialdeko lehengaiak’ dioena, eta kontsumitzaileari lagungarri izateaz gain, saltokiari ere ematen dio balioa”, gehitu du.





Zer diote gure eskualdeko ekoizleek gidaz?

Zazpi dira Imotz eta Basaburutik gidan agertu diren ekoizleak eta eraldatzaileak; bost Imotzen eta bi Basaburuan. Udabeko Dorrea gaztandegia; Berueteko Juanbeltz gaztandegia; Goldarazko Arteta arditegia, Casa Legarra gaztandegia eta Ekollaondo; eta Oskozko Ekosagar zukuak eta Curly Creek Ranch proiektuko barazki eta arrautzak daude gidan sartuta.

Pozik agertu dira guztiak Mendialdeko ekoizleen gida honetan agertu izanaz. Horrela adierazi du Juanbeltz gaztandegiko Asier Juanbeltzek: "Gure produktuen eta lanaren berri emateko aukera da gida, eta, gainera, gu bezalako ekoizle txikiak batuz gida sortzea oso ideia ona iruditu zitzaigun, bata besteari laguntzeko aukera eta elkarren berri izatekoa ematen digulako". 1998tik martxan dute Berueteko Juanbeltz gaztandegia, eta semeak 2012an hartu zuen gurasoen erreleboa.

Oskozko Curly Creek Ranch-eko Meghan Sapp-ek ere, bide berean hitz egin du: "Gidan parte hartzea erabaki genuen, garrantzitsua iruditzen zaigulako eredu agroekologikoan ari garenon produktu anitzak ezagutzera ematea. Oraindik, jende askok supermerkatuetan erosteko ohitura du, askotan ez jakiteagatik. Horregatik da garrantzitsua ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko sareak eraikitzea". Duela bost bat urte hasi ziren etxerako

barazki freskoak eta arrautzak ekoizten, baina pandemia garaian haien produktuak merkaturatzeari ere ekin zioten.

Bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi eskualdeko produktuak saltzen dituzten dendak edo sukaldean horiek erabiltzen dituzten ostatuak ere. Gidan agertzen dira Jauntsarasko Apeztegi berriko denda, Orokietako Ostaturia, Berueteko Peruskenea Jatetxea eta Etxalekuko Ostaturia.



Eskualdeko zazpi ekoizle eta eraldatzaile agertu dira Mendialdeko elikagaien gidan

Gidako ekoizleen datuak

Gida barruan, udalerri bakoitzak kolore bat dauka, hain zuzen, Azoka Ibiltarien karteletan udalerri bakoitzarekin erabiltzen duten kolorea errepikatu dute. Ondoko datuak ematen dira ekoizle bakoitzaren orrialdean:

- Markaren izena
- Ekoizlearen izen abizenak
- Herria
- Kontakturako bideak

• Eskaintzen dituen produktuak eta horien urterokotasuna (urte osoan eskaintzen du, hilabete zehatz batzuetan...?)

• Ekoizle-eraldatzailea edo eraldatzailea den

• Zigiluak (Idiazabal, ekoizpen ekologikokoa...)

• Bazkide den elkarte edo taldeetako logoa

• Salmenta-puntuak (denda eta saltokiak, egiten dituen azokak...)

QR
Mendialdeko
Elikagaiak
gida PDFn





Urtero, udaberriarekin batera teilatupean habia egiten digun bisitaria

Etxe askotako teilatupeetan habiak egin dituzte azken hilabeteotan enarek. Udaberriaren iritsierarekin, eraikuntza lanetan buru-belarri jartzen dira inguruan hain ezagun ditugun hegazti hauek. Bisitari fidel horri eskainiko diogu ale honetako ingurumen tarte.

Hegazti nahiko kosmopolita da enara, horrela irakurri dugu sarean. Zergatik? Bada, mundu osoan bizi direlako, eta nonahi egiten dutelako habia. Mundu osoan, toki bakar batean izan ezik: Antartikan. Toki askotara egokitzeko gaitasuna izan arren, dena dela, hegazti honen jatorria Afrikan dagoela uste da. Euskal Herri osoan arrunta da enara, eta udaberritik udazkenera bitartean landa eremuko eraikin askotan topatuko ditugu haien habiak. Hegazti txiki honen izenak badu bere garrantzia gurean, gainera. Ez al dira ohiko izenak Ainara eta Enara?

Enaren joan-etorriak

Dakizuenek, hegazti migratzaileak dira enarak, eta gurean, Euskal Herrian, uda pasatzen dute. Neguak, berriz, beste hegazti askok bezala, Afrika aldean pasatzen dituzte. Uda bukaera aldean, irailetik urrira, taldeetan bilduko dira, aintzira inguruetan eta kanaberadietan. Indarberrituta egoten dira uda ondoren, eta talde handi xamarretan



Uhalde-enarak

elkartuta, hegoalderako bidea hartuko dute. Gaez nahiz egunez egiten dute hegan, eta, kalkulatzeko, batezbeste orduko 40 edo 50 kilometro egitera iristen direla.

Euskal Herriko enara motak

Gurean ohikoena eta ezagunena dena, **enara arrunta** da, zalantzarik gabe. *Hirundo rustica* da bere izen zientifikoa, eta bizkar eta buru beltza, papar gorria eta sabelalde zuria izan ohi ditu. Talde txikitan aritzen da ehizan enara arrunta, eta lurretik hurbil dauden intsektuak harrapatzen ditu, batik bat: habiatik hurbil dauden zelai eta putzuetan aritzen da ehizan. Egunaren zatirik handiena hegan edo kable edo teilatuen gainean pasatzen du, eta lurrera gutxitan jaisten da. Hori bai, kumaldietan, habia egiteko buztina biltzera jaisten da: buztin eta lokatz zatitxo txikiak mokoan hartuta, belarrarekin eta listuarekin nahasi eta sortzen dituzten bolatxoekin eraikitzen dituzte habiak.

Azken urteotan, enara arruntaren populazioak nabarmen egin du behera, poluzioaren eta pestiziden eraginagatik batez ere. Euskal Herriko hegoaldean, Araban eta Nafarroan kasu, ugariagoa da, baina gainontzeko tokietan ere erraz topatu daiteke.

Enara azpizuria da Euskal Herrian gehien ikusten den beste mota bat. Enara arrunta landa eremura mugatu den bitartean, azpizuria

“ **Kutsaduraren eta pestiziden eraginez, behera egin** ”

hirietara askoz hobeki egokitu da. Baserri inguruak eta herriak enara arruntarekin konpartitu arren, herri handiagoetara eta hirietara ere iritsi da. Aurrekoaren antza izan arren, erraza da bereiztea: arruntak isatsaldean bi luma luze ditu, eta, azpizuriak, ez. Bizkarralde eta isatsa beltzak ditu, baina ipurdi gainean orban zuri-zuria ere badu. Enara arrunta baino txikixeagoa da.

Haitz-enara da hirugarren mota, aurreko biak baino ezezagunagoa eta urriagoa. European bizi diren enaren artean pisutsuena, bizkarralde eta buru arreak ditu, hego ilunagoak eta sabelalde argia, baina ez aurreko enarek bezain zuria. Isatsa, berriz, lauki formakoa du, ez sardekara, aurrekoek bezala, eta orban zuriak ditu isatsean.

Bukatzeko, **uhalde-enara** dugu. Denetan txikiena da, 12 zentimetro inguru besterik ez ditu, eta barruko lurraldeetan bakarrik ikus dezakegu, Arabako eta Nafarroako hegoaldean. Ibai inguruetan eraikitzen ditu habiak, eta kolonia handiak osatzen ditu. Goitik iluna da uhalde-enara, kolore arrea du, eta paparra eta sabela, zuriak. Lepoko arrea du hegazti hau ezagutzeko bereizgarri.



Denok Bat

elkartea

Zahartze aktiborako tailerrak eta Oñatirako txangoa

Oraingoan, maiatzean egindakoari buruz doa gure kronika. Zahartze aktiboaren jarraipena eginez tailerrak antolatu genituen, osasun etxe eta gizarte zerbitzuekin batera.

Tailer horietako bat elikadurari buruzkoa izan zen, eta bi lekutan egin genuen, Berueten eta Burutainen. Bi saioak berdinak izan ziren, Amaia Olague Ilarregik, Jauntsarasko Nutrizionistak, zuzendua. Hasieran nutrizioaren garrantziaz hitz egin zuen, zer onurak ekartzen dituen osasunerako. Ongi egoteko egoki elikatu behar dugula eta, batez ere adinduentzat, proteina eta ura edatea garrantzitsua dela aipatu zizkigun. Gero alde praktikora pasa ginen, eta merendu ordua zenez 4 mokadu osasungarri prestatu genituen merendola egiteko. Mokadu tartean, oso goxoak zeudela entzuten zen.

Bigarren tailerra ariketa fisikoari buruzkoa izan zen, eta Larraintzarren udalak irekitako gimnasio berria ezagutzea izan zen helburua. Bi saio zeuden programatuta, baina biak batera egin ziren, eta Aitor Alduntzinek erakutsi zizkigun instalazio berriak eta makina bakoitzean ariketak nola egin, bildu ginen hamar pertsoneri. Makina guztiak probatzeko tartea izan genuen. Gimnasia joateak ekartzen dituen onurak, ohiturak finkatzearen eta taldean ariketa egitearen garrantzia ere azpimarratu zituen.



Klaustroari buruz gidari galdezka ▲



Hirugarren tailerra ongizate emozionalari buruzkoa izan zen. Bi saio antolatu ziren, baina batean egin ziren biak, Larraintzarko Bentan. Han bildutako hamar pertsoneri, Pilar Larralde Osasun etxeko gizarte langileak eta Miren Huarte gizarte zerbitzukoak han bildutako hamar pertsoneri azaldu zieten zein garrantzitsua den ongi sentitzea eta nahi gabeetatik ateratzeko beharra, bakarrik ezin bada laguntza eskatuz, profesionalak horretarako daudela, esanez.

Laugarren tailerra estimulazio kognitiboari buruzkoa izan zen: eta bi saio izan ziren. Bat Eritzen, 12 pertsonarekin eta bestea Lantzen, 5 pertsonarekin. Maria



Jesus Beunza izan zen bietan hizlaria. Adinarekin gutxituz joaten den funtzio kognitiboa nola mantendu dezakegun esan zigun, eta memoriari buruzko ariketak azpimarratu zituen.

Maiatzeko txangoa Oñatira egin genuen, aurreko alean esan genizuen bezala. 94 bidaiarirekin, aurtengo jendetsuena izan zen.

Goizetik hasi genuen herriko bisita, kafetxo batekin, gero gidarien laguntzarekin abiatu ginen Gipuzkoako herri handienaren zatitxo garrantzitsuak ikustera. Talde batek euskaraz eta besteak erdaraz jaso genituen azalpenak.

Ikusi genituenen artean, Sancti Spiritis unibertsitatea. 1543an sortua, Euskal Herriko lehena izan zen, eta Oñati garai hartako kultur gunea bihurtu zuen. Rodrigo Mercado de Zuazola gotzainaren armarria nonahi agertzen da unibertsitate barruan, bera izan baitzen fundatzailea.



▲ Bazkal ondorengo solasaldian, kafetxoaren zain.



▲ Burutaingo elkartearen bildutakoak mahian prest!!

Unibertsitate barneko eta kanpoko hainbat historia kontatu zizkigun gidariak, garai haietako boteretsuen portaerak nolakoak ziren, adibidez.

San Migel, herriko patroia elizan ere egon ginen, eta barneko egitura ikusgarriak ikusi genituen. XIII. mendekoa dela esan zigun eta gutxienez hiru aldiz sakonki aldatua eta handitua izan dela. Horietako bat, unibertsitatearen egileak berak egin zuena, non klaustro benetan ederra erantsi zion, non eta erreka gainean, ikusgarria!!

Turismo bulegoa antzinako errota baten barnean dago eta, sistema oraindik martxan daukatenez, gure aurrean arto-ale batzuk eho zituen uraren eraginez.

Udaletxe plazan ere egin genuen egonalditxo, eraikinari Iruñekoaren antza hartu genion, arkitekto berdinak egina liteke!

Bazkal aurretik, beta izan genuen herriko beste lekutxo batzuk ikusteko, etxe dotoreez jantzita baitago herria.

Baita txokolategia ikusteko eta ale batzuk erosteko aukera ere izan genuen. Bazkaria herriko ostatu batean egin genuen, Iturritxon, lekuz justu baina janariaz bikain. Arratsaldean norberak aukeratutakoan pasa genuen, paseoa, musea, herriko kafetegietan..., autobus ordura arte. Gorabeherarik gabe etxera itzuli ginen, ilundu aurretik, egun polita pasa ondoren.

Ekainerako txangoan, Loarre (Huesca) gaztelua ikustera joango gara, baina hori datorren alean kontatuko dizuegu. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



**Denok Bat
Jubilatu
Elkartea**



Alazne Fernandez de Muniainen Imozko euskararen inguruko lan saritua, Euskera aldizkarian

Mintzola egitasmoak 2023an saritutako sei lan 'Euskera' ikerketa aldizkariaren 2024ko lehen zenbakian argitaratu dituzte, tartean Alazne Fernandez de Muniain erasoarraren: *Adinaren arabera bariazio lexikoa Imozko hizkeran: inkesta linguistikoak*.

Lan honek hiru belaunaldiren artean dagoen hizkuntza-aldakortasuna erakusten du, Fernandez de Muniainek azaldu duenez: "Adina faktore soziolinguistikoaren arabera, Imozko euskararen lexikoaren lagin bat aztertu dut. 60ko eta 80ko hamarkadetan egindako hainbat inkesta linguistikotatik abiatu naiz (Etxaide 1989, Pagola 1992 eta Huarte 2003) eta, gisa berean, zortzi hiztuni neronek doitutako galdeketa egin diet. Baiki, Imozko euskara etengabe aldatzen ari da, baina bereziki bizia izan da aldaketa azken mende Erdian". Lanaren ondorio nagusiak ere adierazi ditu ikerketaren laburpenean eta euskara batuaren eraginak aipamen berezia merezi

duela: "Emaitzek ondoko ideia nagusi hauek dakartzate, besteak beste: (i) erdialdeko euskararen formek indarra hartu dute, nafarrerazko formen kaltetan; (ii) dialektoen berdintzera jo da eta tokian tokiko aldaki markatuak desagertzen ari dira, estandarren alde eginez; eta (iii) zenbat eta lekukoa gazteago, hainbat eta hizkera hibridoago. Nolanahi ere den, elkarriketaturiko gazteek, orokorki, bertako formei eusten diete".

Euskera ikerketa aldizkariak akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu, eta paperean eta euskarri informatikoan argitaratzen da. Aldizkariak bi zenbaki argitaratzen ditu urtero. Ikerketa-artikuluak argitaratzeko, Idazketa Batzordeak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du PEER REVIEW itsu bikoitza sistema erabiliz.



Okerrak zuzendu behar dira

Azkeneko Pulunpen, 240. zenbakiko 12 orrialdean fotografia zahar bat atera genuen, Basaburuko eta Imozko soldadu batzuenak.

Hartutako informazioa egiaztatu faltan huts larri samarra egin genuen.

Ezkerrean, lehen planoan ageri dena ez da Cristobal baizik bere anaia Bixente Gartzaron Ilarregi, osasunez bizkor dena gainera.

Eta jaiotza urtea ere gaizki dago, 1949a jarri baikenuen denendako.

Benetako jaiotza urteak honako hauek dira: Denak 1947an jaioak dira, Miguel Aldatz ezik, 1946koa baita hau.





Amaia Apalauza Ollok jaso du (H)ilbeltza beka

Imozko alaba da itzultzailea eta aurtengo (H)ilbeltza beka jaso du Nuria Cadenesen Guillem eleberria itzultzeko. Eleberri dokumentala da idazle katalanarena, 2022an eman zuen argitara, eta bertan, Guillem Agullo militante antifaxista eta independentista valentziarraren hilketari buruzkoak jasotzen dira. 2025eko abenduan argitaratuko da Apalauzak itzuliko duen euskarazko bertsioa, Txalaparta argitaletxearen bidez.



Monogamoak, Iñigo Astizen lehenengo ipuin liburua, kalean

Maiatza honetan argitaratu du Iñigo Astiz ultzamarrak bere lehenengo ipuin liburua. Susa argitaletxearekin kaleratutako lanak hamasei narrazio biltzen ditu; orri bakarrekoa, motzena, eta, hamalau orrikoa, luzeena. Leire Lopez Ziluaga editorearen hitzetan "Monogamoak" edo "erdi lehengusuak" dira ipuin hauek, errealitatean oinarritutakoak, elkarren lotura dutelako gaietan. Baina oso anitzak ere badira, luzeran, tonuan eta estiloan. Eta, errealitatean eta egunerokoan oinarrituta ere, batzuetan fantasiatik ere asko dute, delirioa ukitzera ere iristen dira, azalak iradokitzen duen ezinezko oreka horretan, beti.

Horrela, agertzen dira, besteak beste, ETaren eta Poliziaren arteko tiroketa batean hil dela ez dakien gizona, hildakoen pabiloian zein ilara dagokion bilatzen; eskolan svastikak marrazten dituzten bi ume; Lizasoko mojen komentua bisitatzen saiatzen diren bi ahizpa; edo, sarrera eta irteerarik gabeko biribilgune batean bizitzea erabaki duen komunitatea.

Iñigo Astiz, Iraizozkoa, Erandion bizi da eta idazlea eta Berriako kazetaria da. Bi poema liburu idatzi ditu: Baita *hondakinak* ere eta *Analfabetoa*. Bestalde, Maite Mutuberria ultzamarrak ilustratutako *Kixotenean* kronika liburua eta Ez duzu *abusatuko* ikerketa liburua (Alberto Barandiaran eta Miren Rubiorekin batera). Eta, gainera, umeentzako hiru liburu: *Joemak eta Polasak* (Hau ere, Maite Mutuberriarekin), *Haserrea* eta *Kixkur, Pinttoren arreba*.





BTT martxa jendetsua eta gogorra

Basaburuko BTTa izan zen maiatzaren 18an, Jauntsaratsen, eta urtero bezala izugarrizko arrakasta izan zen izen emate aldetik, 300en jarritako muga bete baitzen. Egunean bertan, horietatik 278 atera ziren, baina gutxiengoak lortu zuen ibilbide luzea bukatzea, 67k. Lokatzak asko gogortu zuen martxa, eta hasieran askok utzi zuten. 41 kilometro eta 1.250 metroko desnibela zituen ibilbide luzeak; eta, motzak 26 kilometro eta 650 metroko desnibela.



Nafarroako Foru Erkidegoa txapelketa, Ultzaman

Nafarroako Foru Erkidegoa Torneoa emakumezkoen pilotaren erreferente nagusi bihurtu da, eta, horren adierazle: laugarren edizio honetan 141 emakumek parte hartu dute. Maila ezberdinetan jokatu da, bakarra pilota goxoarekin eta hiru mistoarekin; eta, hainbat kategoriatan: gazteak, promesak eta eliteak.

Nafarroa osoan banatutako partidak izan dira, baita gure eskualdean ere: Vianan, Mendavian, Orkoienen, Antsoainen, Ultzaman, Burlatan, Lekunberrin eta Iruñean.

Maiatzaren 19an Larraintzarren jokatu ziren eta hauek izan ziren emaitzak: Binakakoan, pilota mistoan, gazteen kategorian, Intza Arrutik eta June Zabalak, Zelai Sarratea eta Alaia Alsua garaitu zituzten, 18 eta 9; Nagore Gleanok eta Marta Gomezek, 18 eta 8, Maialen Esnal eta Enara Juantorena binakako pilota mistoan, promesa mailan; eta, pilota mistoan, elite mailan, Arraizak eta Aldaik 22 eta 18 garaitu zituzten Oskoz eta Mendiburu.



EKAINAK 28

LGTBI+

HARROTASUNAREN
NAZIOARTEKO EGUNA



Alizia
64 urte



ANIZTASUNEAN
HARRO



eusk



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua



Aurten ez da izanen argazki lehiaketarik

Argazki lehiaketa azken 9 urtetan egin dugu, baina aurten ez dugu eginen. Eta baliteke aitzina ere ez egitea.

Azken urteetan apalduz joan da parte hartzea, gure nahia besterik zen. Sari aski onak banatu izan ditugu baina, dirudienez, parte hartze eskasaren zioa ez zegoen horretan: argazkigintzan zaletasunik eza, modatik pasatua izatea... ez dakigu ziur zergatia.

Dena dela, parte hartu izan duten guziei gure esker ona azaltzea besterik ez zaigu gelditzen.

AMETZA gure komunikabideei eusteaz at, beste ekintza batzuetan parte hartu du eta parte hartuko dugu, bazkide, irakurle-entzule eta adiskide guziei laguntzari esker.



Irudi bat, edo bi

Gurutz Urzelai Iribarrenek Lizasoko elkarteko paretan herriaren irudi ederra margotu du, argazkian ikusten duzuen bezala. Adi-adi begiratuz gero, detaileak aurkitu daitezke, adibidez, iskineko katutxo hori.





deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA EFIZIENTEAK



ENERGIA AURREZTEA



**SEGURTASUNA ETA
SENDOTASUNA**



ERABATEKO ISOLAMENDUA

“Profesionalki nire lana da bideogintza, baina bideoaktibismoak ere garrantzia handia izan du nire ibilbidean”

Aritz Gorostiaga Eskubi latasarraren ekoizpen-etxea da Bi Ahizpak Bideo. Txikitatik datorkio ikus-entzunezkoekiko interesa, eta profesionalki horretan aritu da beti. Lana bideoaktibismoarekin uztartu izan du urte guztietan, dena den, eta gaur egun ere horretan dihardu. Esaterako, Esan Erraneko 25 urteak jasotzen dituen **Dialeko azkenak** dokumentalaren egilea da, eta azken hilabeteotan, eskualdeko Ezpela euskara taldearekin ere hainbat bideo egin ditu.

Noiztik datorkizu entzunezkoekiko interesa?

Etiket jaso dut zaletasuna, amak beti egin ditu argazkiak, bere kabuz, eta beti izan genuen etxean argazki makina analogikoa, bere karreteekin... Nik ere, txikitan banuen makina, argazkiak egiten aritzen nintzen, eta errebelatzen ere ikasi nuen. Uste dut 15 urterekin jaso nuela lehenbiziko ikastaroa. Ikasketetan nahiko ongi moldatu nintzen unibertsitatara sartu aurreko kurtsora iritsi arte; hor kostatzen hasi zitzaidan eta utzi egin nuen azkenean. Orduan, Andoaingo ikus-entzunezko lanbide heziketa kurtsora sartu nintzen. Hiru urte eman nituen han.

Behin ikasketak amaituta, segituan hasi zinen lanean?

Bai, Andoaingo ikasketak 1994an edo 1995ean bukatu nituen, eta hor segidan Pamplona Television katean hasi nintzen praktikak egiten. Iruñean zegoen tokiko telebista berria eta bakarra zen, Hiru Erregeen Hotelean genuen plotoa, eta oso *fatxa* zen. Baina, asko ikasi nuen han, kamera moduan, edizioan eta errealizazioan aritu nintzen. Gerora, handik, Canal 4 Navarrara pasatu nintzen, Cordovillara. Han, beste hiruzpalau urte egin nituen, baina gerora, arazo ekonomikoak tarteko, nekatu eta utzi egin nuen, ekoizpen-etxe batera aldatzeko aukera izan nuelako.

“Etiket jaso nuen ikus-entzunezkoekiko zaletasuna, txikitatik”



Eta, nola izan zen telebistatik ekoizpen-etxerako jauzi hori?

Garai polita izan zen. Tripper eta Zapping izeneko ekoizpen-etxea zen, gerora Navarra de Cine bihurtu zena. Enpresa txikia zen, hiruzpalau langile ginen, baina lan franko egin genuen. Lehen aldia zen telebistatik kanpoko gauzak ekoizten nituena, denetik egiten genuen: dokumentalak, telebistarako gauzak, itsuendako eta gorrendako pelikulak ere egokitzen genituen... azken horretan, aitzindariak izan ginen, nolabait: jendea zinemara joaten zen, eta aurikularrekin edo azpitituluekin, pelikulak ikusi eta entzuteko aukera zuten. Orain asko aurreratu da hori, baina garai hartan, teknikoki, erronka handia zen.





Geroago, Bi Ahizpak Bideo proiektu propioa sortzea erabaki zenuen. Nola sortu zen aukera hori?

2004. urte inguruan krisia etorri zen, ekoizpen-etxeak ez zuen gehiagorako ematen, eta orduan autonomo egin ninduten. Garai hartan etorri nintzen Latasara bizitzera, eta handik urte gutxira, ekoizpen-etxeak azkenean atea itxi behar izan zituen. Orduan erabaki nuen Bi Ahizpak Bideo proiektua sortzea. 2010. urte ingurua izanen zela uste dut. Nire proiektu propioa da, bakarrik egiten dut lan, eta gauza asko etxetik egiten ditut. Gero, batzuetan, zerbaitetarako laguntza behar badut ni bezalako autonomoak deitu eta elkarrekin aritzen gara.

Ze lan mota egin dituzu urteotan Bi Ahizpak Bideon?

Enkargu bidez egiten ditut lanak, bai hainbat komunikazio enpresarendako, eta baita Nafarroako Gobernuarendako ere. Esaterako, lan asko egin dut memoria historikoaren inguruan, deshobiratzeak, gerra garaiko istorioak... bi dokumental egin ditut gai horren inguruan: **Los buñerques de Franco** eta **La ciudad de los cautivos**. Eta, Nafarroako Gobernuaren youtube kanalerako ere bideo txiki asko egin ditut,

elkarrizketak, ondare artxiborako. Memoriaren institututik elkarrizketa asko ari dira egiten artxibo hori osatzeko, ikertzeko, eta abar. Eta, horretaz guztiaz aparte, **Dialeko Azkenak** bezalako proiektuak ere sortzen zaizkit: bailarako irrati txiki bat da, herritarrek sortua, euskara bultzatzen duena... ekonomikoki agian ez dute ahalmenik, baina sozialki oso garrantzitsua dela uste dut, eta horregatik beti egon naiz prest horrelako gauzak ere egiteko.

Aurrera begira, zer duzu esku artean?

Nafarroako Gobernuarendako beste dokumental bat egiten ari gara, Memoria institutuarendako. Nafarroako muge inguruko ikus-entzunezkoa da: lehen mugak nola ziren, gerra garaian, eta orain nola dauden muga horiek. Orain, bertan bizi den jendeak dio mugarik ez duela ikusten, arazorik gabe pasa daitezkeela. Baina, aldiz, etorkinekin ere ari gara lanean, haiek ez dute guk bezala ikusten muga hori: haiek dira orain nolanahi pasa ezin direnak, toki arriskutsuetatik pasatu behar dute... orduan, paralelismo bat egin nahi dugu, lehengo mugak eta oraingoak. 40 minutuko lana izanen da, eskoletan botatzeko eta lantzeko ere izanen da, eta espero dugu heldu den urtean aterako dela.

“ Internetek asko erraztu du gure lana, eta zabalpenerako ere aukera handia ematen du ”

Bideogintza eta aktibismoa, eskutik hartuta

Urteak egin zituen Aritz Gorostiagak Eguzki Bideoak proiektuan, bideoaktibista moduan. “Canal 4n eta antzeko kateetan ari nintzen aldi berean, Eguzki Bideoak taldean ere aritu nintzen. Finantziaraziorako pelikulak aire librean ematen genituen herrietan. Kolektibo bat ginen, Eguzki Irratiari lotuak, baina irratia egin beharrean irudia landu nahi genuenak. Horrela sortu zen proiektua, eta lan asko egin genituen: Itoizko urtegiaren inguruko dokumentala, Euskal Jai gaztetxearena, Angel Berruetaren inguruko, Memoriari lotutakoak, okupazioaren inguruko Piztera! Dokumentala, Hatortxu Rock-eko bideoak... Beti uztartu dut bideogintza profesionala bideoaktibismoarekin”.



▲ Ugandan. Focun on Gulu dokumentala grabatzen



Arañotz



Basaburuko BTTan



Etxalekuarrak Ergamendin



Maiatzaren lehenean mendi martxa egin zuten Basaburuan. Orokietatik atera eta Orokietara itzuli ziren



Basaburuko herrien arteko mus txapelketan, txapeldunak Gartzarongo taldekideak izan dira. Bigarrenak, Betierekoak.



Kirolaren eguna Ultzaman



Ultzamako nesken eskubaloit taldea



Santurbe ospatu zuten, maiatzaren 26an



Ultzamako nesken eskubaloit taldeak kopa irabazi zuen



Adinekoak eta pertsona zaurgarriak, komunitatean zaindu

Adinekoen eta pertsona zaurgarrien arrisku egoerak murrizteko eta hautatu ez den bakardadea saihesteko, Teknoadineko landalab proiektua abiatu da. Horretarako, Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen mankomunitateak eta Zakan kooperatibak elkarlanean ari dira. Sakanan hiru mankomunitate dira: Irurtzungoa, Etxarri Aranazkoa; eta, Altsasu, Olazti eta Ziordikoa. Gure eskualdean, Imotz, Irurtzungoan sartzen da, eta, horregatik, proiektua Etxalekun ere aurkeztu dute.

Imotz Irurtzungo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen barruandagoeta Sakanan ezartzen ari den Sakana Teknoadineko Landalab Auzozaintza proiektua aurkeztu dute bertan. Helburua: adinekoen bakardade arriskua eta haren ondorioak murriztea, beren etxeetan ahalik eta luzeen bizi daitezen, behar den bizi kalitatearekin. Horretarako eta teknologia berrien laguntzarekin, herritarren, udalen eta gizarte zerbitzuen informazio kanalak eta elkarlana bultzatu nahi dira; hau da, gizarte zerbitzuak indartzea, herritarrekin eta komunitatearekin duten harremana sendotuz. Proiektu hau Zakan Sozial Nafarroako gizarte-ekimeneko kooperatiba garatzen ari da eta Nafarroako Gobernuak diruz lagundu du, baita Europar Batasunak- Next Generation EU funtsen bidez- ere. Etxalekun egin zen aurkezpenaren ondoren, interesa dutenekin, prestakuntza saioak eginen hasiko dira.

Auzo-zaintza

Izena ematen duten herritarren artean, auzo-zaintzaileak eta zainduak izanen direnak bilatzea da asmoa. Hau da, interesa duen adineko pertsonak inguruko auzokide edo lagun bat izanen du bere ongizatearekin adi, eta, arrisku egoerarik identifikatuko balu, gizarte zerbitzuak abisatuko lituzke. Idoia Gartzia Zakan kooperatibako kidea da: "Zaintza komunitarioaz hitz egiten dugu eta jakin badakigu, herri txikietan zaintza komunitario hori era naturalean ematen dela. Adi egon ohi gara ondokoak edo bizilaguna ondo dagoen edo ez ikusteko". Oihane Armendariz ere Zakan kooperatibakoa da eta

Idoia Gartziaidiarekin aurkeztu zuen proiektua, Imotzen: "Uste dugu komunitatea klabea dela prebentzioan lan egiteko, bizilagunak ezagutzea klabea baita".

Era naturalean ematen den komunitatearen zaintza hori bultzatzea da helburua. Horrela aurkezpen hauen ondoren, informazio eta prestakuntza saioekin hasiko dira, proiektuan parte hartuko duten herritarrei nola jokatu erakusteko. Idoia Gartziaidia: "Batez ere... egoerak edo egoera larriak detektatzeko eta hautemateko tresnak eta balia-bideak eman nahi zaizkie komunitateari, egoera larri batean zer egin edo nora jo jakiteko".



Parte hartzeko, jarri kontaktuan:

Amaia Iriarte
koordinatzailea

amaiairiarate@zakan.org

688756708




TEKNOADINEKO LANDALAB
1. SAIOA: HARREMAN SOZIAL OSASUNTSUAK ETA ZAINTZA KOMUNITARIOA

SESIÓN 1: RELACIONES SOCIALES SALUDABLES Y CUIDADO COMUNITARIO

Ekainak 17, 18:00etan Irurtzongo Jubilatuen Elkartean
 Ekainak 18, 18:00etan Etxarriko Kultur etxean
 Ekainak 19, 17:30etan Altsasuko Jubilatuen elkartean
 Ekainak 20, 18:00etan Lekunberri-Larrauneko Gabari
 gunek irekian

Herri txikietako abantailak

Proiektua martxan jarri baino lehen hainbat diagnostiko osatu zituzten, egindako inkestetan ateratako ondorioekin. Gure eskualdekoak diren herri txikiek eman dezaketen aukera izan zen horietako ondoriotako bat, Idoia Gartzandia: "Hiru diagnostiko ezberdin egin genituen mankomunitate bakoitzean. Irurtzongo eta Etxarrikoan herri txikiagoak dira eta hor ikusi dugu bizilagunen arteko harremana estuagoa dela eta proiektuan horri heldu diezaiokegula". Oihane Armendariz: "Hori oso baliagarria da, bai. Bestetik, komunitateak belaunaldien arteko espazioak nahi dituela ere ikusi dugu".



Carrefour
express

Zugandik gertuago

**¡Zure zain
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8
 31867 Aroztegi - Atezko Ibarra
 IZARPE KANPINA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
9'00 - 20'00
LARUNBATA ETA IGANDEA
9'00-14'00 / 16'00 -20'00



Denok batera, zahar eta gazte

Maiatzaren 4an, larunbata, eguerdiko hamabietan egin genuen D ereduaren aldeko ekitaldi handia Larraintzarko Zineman.

Aurretik 6 bideo egin eta hedatu genituen alderdi honetako herri eta etxe guzietara. Hori zen nahia eta uste dugu hein batean erdietsi genuela. Eskerrik asko laguntza eman diguzuen herri guzietako whatsapp taldeei. Bakarren batek erran digu ez zela beren egitekoa, Kontzejuko gauzak bakarrik sartzen direla taldean. Erregela guziak badu beren salbuespena eta **euskararen aldeko** horrelako ekitaldia salbuetsia beharko lukeela uste dugu.

Ekitaldia bera, ederki atera zitzaigun, jende aunitz bildu baitzen.

Ekitaldiari hasiera Anotzibarko Iñigo Ibarrek eman zion hiru bertsoekin. Ondoren, Ultzaman D eredu sortu zuten gurasoekin egin bideoa eman zen.

Ondarrean, garai hartako hiru gurasoen solas eta iritzi trukea izan zen. Puri Etxeberria, Antonio Ziganda eta Isabel Oiarzunek aspaldi hartan hartu zituzten erabaki eta lanen berri eman ziguten: zergatik eta nola. Zigandaren kontakizunak malkoren bat ere isur arazi zigun.

Ekitaldiko bigarren partera sartu baino lehen Lizasoko Itziar Olaguek biolinez hiru pieza jo zituen, harmanki.

Bigarren partean, berriz, oraingo gurasoekin egindako bideo bat

eman genuen eta ondoren bi guraso aritu ziren, buruz buru, oraingo D ereduaz, kezka, neke eta galderen bidean. Denbora aitzina zihoan eta motx aritu behar izan zuten Urritzolako Imanol Landiribar eta Anotzibarko Gurutze Santxo. Tamalez!

Eta bukatzeko oparia eta aureskua. Alaznek Fdz. de Muniain erasoarrak auresku bat dantzatu zien Ultzamara D eredu ekarri zuten guziei (D eredu jarri aitzinetik ere izan ziren hainbat euskaltzale gogor aritu zirenak euskara eskoletan sartzen eta ez ditugu atzenduak, ez horixe!)

Luis Mariñelarena, lanztarrak, goxoki eta baratxe-baratxe gidatu zuen ekitaldi guzia.

Eta dena bururatzeko, bertako ostatuan otamen bikaina prestatua ziguten ostalariek. Patxada ederrean egon ginen hitz eta pitz, pilak kargatuz Euskal Herriaren alde eta euskararen mesedetan gure ahaleginak egiten segitzeko.

Hala ere, egia guzia erran behar bada, bakarren batzuk faltan hauteman genituen. Barkatu atrebentzia.

Ezpela euskara taldekook eta gainerako guziok, pozik itzuli ginen bakoitza bere etxea.

Hau hasiera bertzerik ez da. Bidelagun izanen gaituzuelakoan besarkada estu bat euskaltzale guziok.



Omendutako gurasoak: Pilar Goñi, Bernardo Etxeberria, Mentxu Ollo, Nicolas Iragi, Carmen Erbiti, Puri Etxeberria, Isabel Oiarzun, Antonio Ziganda eta Kontxi Gaskue



Guraso omenduak

Pedro San Julian Artola
eta Karmele Erbiti Arbilla,
Ilarregikoak

Antonio Ziganda Lakuntza eta
Maria Jesus Galain Matxiñena,
Larraitzarkoak

Jose Maria Beratsain Lasarte
eta Puri Etxeberria Iztueta,
Auzakoak

Francisco Iraizotz Indaberea
eta Isabel Oiarzun Azpirotz,
Aritzukoak

Nicolas Iragi Ziganda
eta Mirentxu Ollo Lizaso,
Erripakoak

Javier Beratsain Armendaritz
eta Kontxi Gaskue Goñi,
Auzakoak

Felix Larraiotz Gelbentzu
eta Maria Sol Arano Hualde,
Larraitzarkoak.

Bernardo Etxeberria
Olague, eta Pilar Goñi Ibero,
Gelbentzukoak



▲ Gurasoei egin zaien oparia (D ereduan hasi ziren umeak harri grabatuan)



Ezpela euskara taldea



Aurretik dator:

Aurreko Pulunpeko artikulua segida dugu gaurkoa. Martin Aizkorbe ilarregiarrari eman zioten heriotzaren gora-behera franko dakartzagu gaurkoan.

Gorpuaren bila.

Aurrekoan esan genuen bezala, irailaren 18an, ostegunez, atxilotu eta Lekunberrira eraman zituzten bi anaia gazteenak.

Kuartelean galdekatu ondoren herrira ekarri zituzten eta beruetear batek kontatu zigunez, *herrin barna ibillu yoka eta azkeniin esan ziten non bota zuten gorputze*. Hilaren 20a zen, larunbata.

Beste bi herritarrek gehiago esan digute eta azaldu nola galdu ziren:

Herrikoitxeko kartzeliin eoten omen yittun, gaue pasten guardi zibillekin, ta denak lo zeela ustian, batek bestiai esan omen zioken: gaur ondo-ondoan ziarroa erre diu ba!

Guardia zibil bat euskalduna izaki eta ederki entendatu. Biharamunean zigarroak non erre zituzten atera kontuak, denetara egun guzian hiru zigarro besterik ez baitzituzten erre, bat San Pablon, bestea Ibaien eta azkena Almotorronean, eta horretatik galdu ziren.

Anaia zaharrena, Bernardo, etxetik ihesi, Frantziara alde egiteko dudak, herritik hurbil omen zebilen ezkutaturik. Bere andrearen etxera, **Idiagara** etortzen omen zen janari bila, zibilak herrian ez zirenean; maindire zuria jartzen omen zuten balkoian, zibilak ez zebiltzala adierazteko. Eta hilaren 21ean, koinatak, maindire zuria jarri omen zuen Zibilekin tratua egin ondoren eta horrela erori omen zen Bernardo, eta Lekunberrira eraman bere senideekin bateratzeko.



Berueteko plazan herri guzia. Gaur kontatzen duguna gertatu eta urte gutxira. Urak ekartzeko obren inaugurazikoa omen, 1930koa. Neskatxa dantzariak lepoko ederrekin apaindurik eta ikusle guziak kamerari begira; Begiratu ongi: ikusleak, dantzariak, gizonen brusa beltzak eta atorra zuriak, emakumeen gonak, apezak, makuluekin zahar bat; Karreraperen lehen arkua tapatua eta pareta zuritua, frontoi gisa ibiltzeko...



Hala kontatu digu gure adiskide batek:

Hori harpatu ziten eune iande omen yun, ta iande atsaldee, ta bezpeta yoan jendee, -ordun asko yoaten baitzen, elize betee- ta herri guzi prozesioan elizen bueltan ta momentu hartan ekartzen omen ziteken zibillek Bernardo lotuta. Ikusi ben'tziteken dena.

Biharamunean, 22an, astelehenez, eguerdian, Plazaola trenean eraman zituzten Goñitarrak Iruñera. Han, 5 egunen barnean, izanen zuten judizioa.

Egun berean, goizez, Martin Aizkorberen hilotzari autopsia egin eta atsaldean Lekunberriko kanposantuan ehortzi zuten gizajoa!

Honaino kontu "ofiziala", baina bazen gehiago.



▲ Herrikoetxea. Orain ageri den bezala, arku guziak libre.

HONAINO KONTU "OFIZIALA", BAINA BAZEN GEHIAGO

Ustez gauzak ongi egin eta gaizki ateratzen

Ustez gauzak ongi egin zituzten, ustez behintzat ez zituen inork ikusi elkarrekin.

Gainera, Leitzakoan zuten lantegia, Erasoten, eta haiek lontzatik hurbil hil eta zeramaten bidea utzi, beste direkzio bat hartu, eta hila kargatu eta ia bi kilometroz Utziko Santagrazi aldera jo zuten. Bertan ezagutzen zuten leize ezkutu batean bota zuten. Beren lantegiko bidetik oso-oso urruti.

Gainera, jende artean ere zabaldu zen Martin Aizkorbe gaizoak, diruaz tentaturik, Frantzia aldera ihesi egin

ote zuen. Heriotza bezperan berak esan omen zuen atzerrira joateko nahia zuela. Nork zabaldu zuen kontu hori herrian? Lapurrak ez baziren, nork?

Ustez dena ongi, baina leizera botatzean, gorpuaren kargarekin luze ibili ondoren, nekearen nekez eta urduritasunaren urduriz, errazegi ibili ziren: azal antza gelditu zitzairen gorputza. Azken azkenean huts larri xamarra!

Eta esan duguna, ustez inork ez zituen ikusi, baina Iturriagako Fermin Telletxeak bai ikusi zituela elkarrekin nola zihozten oinez. Kontu larria zen hau ere.

Bi kontu horiez gain badira kontu gehiago eta larriagoak

La Voz de Navarra egunkaria ere ikuskatu dugu eta arraioa! Zer opatuko eta Basaburuko korrespontsalaren kontakizuna. Eta nor izanen korrespontsala eta Don Timoteo Lazkotez, Bailarako Sekretarioa. Inork jakitekoan honek jakinen zuen zerbait baino gehiago eta honen aurrekoak, Don Eulogio Ortigosa oraindik Juzgaduko idazkaria zenak are gehiago. Inork deus jakitekotan hauek jakinen zuten, jendeak hauengana jotzen baitzuen arazoak kontatzera eta aholkuak eskatzera.



Berueteko

lapurrak (III)

Juzgaduko idazkaria izan zen azeria, betikoa.

Don Eulogio Ortigosa aspaldiko urteetan idazkari egondakoa, Jauntsaratsen bizi zen. Igandez joaten zen jendea Sekretarioarengana eta, zer pasatu zen? Ba, Juan Martin eta Jose izan zirela Jauntsaratsen eta idazkariarengana jo zutela kontsulta bat egitera:

-Gu ikusi gaituzte oinez Martin Aizkorberekin batean. Bide puxka bat berarekin egin dugu, kasualitatez, eta ondoren bera bere bidean utzi eta gu erosketak egitera joan gara. Hau dela eta, gure kontra egiteko motiborik ikusten al duzu?

-Ez, ez, lasai, Aizkorbek ihesi egin baldin badu, ez duzue motiborik

kezkatzeko. Baina heriotza bat izan bada, zuek izanen zarete lehenbiziko susmagarriak.

Eta lasai ederrean joan omen ziren berendatzera ondoko etxera (**Apeztegiberri** esaten diogun horretara? Edo **Martikonera**?)

Nik nori entzuna ez dakit, baina egun horretan Jauntsaratsen pilota partida zela nuen entzuna. Eta atsalde pasa eta pilota partida ikustera hurbildu lapurrak! Eta bidenabar Ortigosarekin egotera.

Zerbait larri nabaritu zien beren aurpegietan Ortigosak goñitarrei eta berehala Lekunberriko guardia zibilen kaboari gaztigatu:

-Hor dituzu hiltzaileak zein diren, dudarik ez dago.

Eta biharamunean Ilarregiko Aizkorbetarrak Kuartelera denuntziatzera joan zirenean, kaboak aise bota zuen eta segurantziz guziarekin:

-Hemen badugu krimen bat, dudarik gabe!

Jakina, bezperan Ortigosak mandatua bidali eta, aise aritu zen horrelako baieztapen larria botatzen.

Eta, bi guardia zibil pare harturik Beruetera jo zuen azterketak egitera. Hiru egunetara bi anaiak atxilotu zituen. Hauek ezetz, ezetz, ez zutela deus ikustekorik, **erosketak egiten ibili zirela desagertu zen atsaldean**, dena ederkiz frogatuz gainera. Eta ez zutela ideiarik ere zergatik zen desagertua Aizkorbe.



Txurdan

KRONOLOGIA PIXKA BAT

Aurreko Pulunpen eta gaur dakarguna, zertxobait errazteko, hemen jarriko dizuegu gertakizunen kronologia:

Irailaren 10ean, asteazkenez, hil zuten Aizkorbe.

Irailaren 11tik hasi eta aste guzian, Martin gizajoaren bila, batez ere bere bi anaiak.

Irailaren 14an, igandea:

Bi lapurrak kontsulta egin zuten Basaburuko juzgaduko idazkariarekin, Don Eulogio Ortigosarekin. Eta honek, berehala, Guardia Zibilak gaztigatu.

(Egun berean, Lekunberrin **Fiesta Vasca** deitzen zuten haietakoa izan zen, izugarrizko jendeketa bildu zen (Urtean, horrelako bi

edo hiru festa egiten zituzten Nafarroan, beti toki diferenteetan, euskarari prestigioa emateko eta euskaldunei indarra eta kementa)

Irailaren 15ean, astelehena, Aizkorberen bi anaia Lekunberrira parte ematera Juan Martin desagertu zela eta.

Irailaren 18an, atxilotu zituzten bi anaia gazteenak.

Irailaren 20an, larunbatez, hilotza opatu zuten eta bi anaiak aitortu ere bai, berak izan zirela.

Irailaren 21ean, igandez, anaia zaharrena, Bernardo atxilotu zuten Berueten, **Idiagan**.

Irailaren 22an, hiru anaiak Plazaola trenean sartu eta Iruñera eramane zituzten. Ez ziren inoiz itzuliko, ez bizirik eta ez hilik.

Hiztegia

Gorpua: hilotza, cadaver

Atxilotu: detener

Galdekatu: interrogar

Ehortzi: lurperatu

Lantegia: Arbolak bota edo ikatza egiteko egurra biltzen zuten eremua

Atzerria: estranjero

Arazoa: problema

Aholkua: consejo

Eulogio Ortigosa: jubilatutako artio idazkaria izana. Azeri fama zuen.

Eta beste batzuekin, bereziki, gure semearekin

Gure ama duk hori, ez **nirea**. **Gure** atte eta ez **nirea**. **Gure** herria ditek atzean eta ez **nire** herria. **Gure** etxea eta ez **nirea**. **Gure** etako izanen duk etxe hori eta ez **nire** etako (Hobe **gurea** izatea eta ez **nirea**, **ni** besteez aparte ez nauk deus eta)

Ez zekiat zertaz den kontu hau horrela aldatu, **gu** eta **ni** izenordainak nahastea edo hobeki esan "gu" "ni" izenordainez ordezkatzeari, bizitzaren filosofia aldatu delakoz edo hizkuntza behar bezala ikasi ez dugulakoz, baina jende askok **gure** erabili beharrean **nire** zerabitek.

Gauzak behar bezala erabiltzeko, askotan haur eta gaztaroko euskara hura oroitu eta hartara begiratu behar izaten diagu behar bezala esateko gauzak. Adibidez, oroimenara zekarret Fidelen Maixtentxon.

(Ongi zuzen esanen zizkizun, bai, etxekoez mintzatzean:

Gue Juanito, senarra Juanitoz ari zenean. Edo **gure gizona**.

Gue amandrea zena (amañiz)

Gue attek iña izaten men'da (bere attez)

Berriz, **nire** senarra esanen zizun, okerrik gabe, hala behar zen eta!

Eta bai Pascualak eta bai Frantxiskek **gure mutikoa** esanen zizuten, nahiz mutiko garaietatik aspaldian pasatakoak izan beren bi semeak. Haienezat mutikoak ziren, baina batez ere **gureak** eta ez **nireak**)

Eta iruditzen ez bazaik ere, **gure** andrea esaten duk. Aldiz, **nire** emaztea.

Orain ez zekiat herritxoak errifatu dituzten edo zer demontre pasatzen den. Edozein mukizuk esanen dik

nire herria. Baina herri baten jabe ote da ba gaztetto hau? Ez, hizkuntza zaiok atzendu, **gure** esan beharren ez du ba **nire** erabiltzen!?

Hizkuntza zikina edo filosofia indibidualista ote da zabaldu? Biak esanen nitek nik. Hortaz, hizkuntzari eusten badiogu filosofia zuzenari ere eusteko balioko ziguk. Gure nortasuna, gure hizkuntza, kanpotarren eta erdaren nagusigotik libre!

Eta bukatzeko, oraingo gazteei gure hizkuntza zuzen erabil dezaten, ahaidez mintzatzerakoan, ikasi hauek zuzen erabiltzen:

Aita-amak edo gurasoak (azken hau normalean)

Osaba-izebak

Anai-arrebak edo senideak (azken hau gurean behintzat) Zazpi senide gara, 4 neskato eta 3 mutiko.

Aitatxi-amatxiak aspaldian hilak ditiat.

Eta horrela.

Ikusi dugunez, aurrean jarri ditiagu gizonezkoak, baina ez beti. Adibidez, **Neska-Mutilak** esaten duk.

Pare horiek ongi ikasi eta erabili, hire hizkuntza errespetatzeaz gain, hire hizketa dotoretuko duk eta.

Gure hizkuntzari errespetua eta ez gaztelaren morroi jarri. Gu ez gaudek kolonizatuak seme! Edo ez genikek hala behar. Gutxiago oraindik kolono lapurrak, lapurrak baititut kolono guziak. Gu euskaldunak gaituk!!!!

Ardo frexkoak gora, ozpinduak errekarat!



Txurdan



▲ Misio urtea izanen zen. Hor Iruñarregi eta Alustiza misiolariak, herriko emakume talde handi xamarrekin. Orduan GU izaten zen eta ez NI. Herria gurea, ama gurea eta gure etxea. Komunitatea bizkorra izaten zen (Batzuei jarri diet lan polita ageri diren horiei nola zaien, eta zein etxetakoak diren asmatzen)

Lanzko frontenis txapelketa mistoak, arrakasta bizia

Ekainaren 23an izanen dira finalak, eta, lehenengo urtean izugarrizko arrakasta izan bazuen, bere bigarren edizio honetan, 30 bikotek eman dute izena, helduen mailan. Gainera, umeen maila ere badago, sei bikotek hartu dute parte kategoria horretan.

Oihana Oiz eta Saioa Oiz ahizpen ideia izan zen, eta, berehala, Joseba eta Asier Olkotz anaiak batu zitzaizkien antolaketa lanetan. Oihana Oiz: "Ni orduan frontenis txapelketa batean lehiatzen ari nintzen, eta nire ahizpak aipatu zidan Lantzen ere horrelako zerbait antolatzeko ideia, eta horrela sortu zen. Herriko bi lagunekin hitz egin genuen, gauzak prestatzeko gogoz izaten direnak, eta lauon artean prestatu genuen. Lehenengo urtean jende pila bat apuntatu zen eta, honetan, are gehiago. Helduen

“Lehenengo urtean jende pila bat apuntatu zen eta, honetan, are gehiago. 30 bikote gaude”

mailan, hamalau urtetik gorakoen mailan, 30 bikote gaude eta, umeen kategorian, sei”.

Txapelketa mistoa

Beharbada gero eta gehiago egiten dira, baina ez dira ohikoenak, eta, gurean, guk dakigula, ez dugu txapelketa mistorik. Hori da Lanzko frontenis txapelketaren berezitasunetako bat. Aurten, gainera, zorrotz jarri dira, eta derrigorrezko baldintza da bikote guztiak mistoak izatea, Oihana Oizek azaldu digu: “Joan zen urtean, lehenengoa izanda, nola ateratzen zen ikusi nahi genuelako mistoak ez ziren bikoteei ere izena ematen utzi genien, baina aurten derrigorrez ezarri dugu baldintza, lehia orekatua izan dadin. Aldi berean, gainera, pertsona ezberdinen harremanak bultzatu nahi ditugu. Gaztetxoei gehiago kostatzen zaie, zailagoa egiten zaie, baina aurten moldatu behar izan dira”.

“Giro ona egoten da eta jendea plazara ateratzen da partidak ikustera”

Baldintza bete ezin izan duten batzuk kanpoan gelditu dira; eta, hala ere, izugarrizko arrakasta izan du aurtengo edizioak ere. Lehenengoan izen emate kopurua altua izan bazen, 22 bikotek eman baitzuten izena helduen mailan, aurten, are gehiago. Lehen aipatu bezala, 30 apuntatu baitira. Afizioa bada Lantzen, beraz, Oizek baieztatu bezala: “Bai, egia esanda, eguraldi eguzkitsuarekin jendea animatzen da. Nik txikitatik gogoratzen dut erraketarekin asko ibiltzen ginela. Gero badaude aurretik sekula aritu ez direnak ere, erraketa sekula ukitu ez dutenak, jokatzeko ez zekitenak, baina animatu dira, ongi pasatzeko. Giro ona egoten da, eta jendea plazara ateratzen da partidak ikustera”. Heldu eta umeen artean 72 pertsona parte hartzen ari da, beraz, gehiengoa, Lanzkoa.



Helduen txapelketako partida bat. Herritar ugari hurbiltzen da partidak ikustera



Finala, San Juan gauean

Hainbeste parte-hartzailerekin, taldeak osatu dituzte, ligaxka jokatzeko. Zortzi bikotek osatutako bi talde, eta zazpi bikoteko beste bat. Horrela, faseka jokatu da txapelketa: lehenengoa, aste santutik maiatzaren 19a bitartean; final laurdenak, ekaina hasiera bitartean; ondoren, final erdiak jokatzeko astebete izan dute, eta, finala, ekainaren 23an izanen da, San Juan bezperan. Oihana Oiz: "Egun horretan San Juan suak egiten ditugula aprobetxatuko dugu. Modu horretan, arratsaldean finalak izanen dira, eta gero San Juan ospatuko dugu. Egun berezia denez, jende gehiago egoten da".

Umeen kategorian, helduen mailan ez bezala, bikote guztiek jokatu dute guztien kontra, aipatu bezala, sei bikote direlako. Zazpi eta hamalau urte bitarteko hurrek parte hartzen dute maila horretan.

Datorren Pulunpen esanen dizkizuegu emaitzak, nahiz eta, sumatuko duzue, nork irabazi, gutxienekoa da, herri osoak, parte hartzen duenak eta ez duenak, ongi pasatzea da helburua.

EGUTEGI FINKORIK GABE

Herriko ekimenen abantaila ere bada herritarren artean nahi bezala antolatu daitekeela, eta, kasu honetan ere, horrela izan da. Txapelketaren egutegi finkorik ez da egon, pilotalekua kalean izanda, eguraldiaren arabera eta parte-hartzaileen aukeraren arabera haien artean antolatu baitira. Baina faseak jokatzeko epe batzuk ezarri ziren:

• Lehenengo fasea:

Aste Santutik maiatzaren 19a bitartean

• Bigarren fasea:

final laurdenak, ondoren, bi astez

• Hirugarren fasea:

final erdiak, astebetez

• Finala:

ekainaren 23an izanen da



▲ Umeen txapelketan sei bikote ari dira



▲ Punteroan jolasten, txapelketan



Udarako podcast menu zabala

la oharkabeen iritsi zaigu berriz irratia denboraldi amaiera, eta, orain arte eguraldia lagun izan ez bada ere, udako oporren zantzuak nabariak dira dagoeneko. Baina, lasai! Irratia oporretara doa, baina gu ez: amezti.eus-en albisteak, agenda eta bestelakoak eguneratzen segituko dugu. Eta, bidenabar, jakin, udarako podcast interesgarri asko ditugula entzungai!

Hilero bezala, honetan ere irratiko hainbat elkarrizketa eta kolaborazio igo ditugu amezti.eus webgunera. Dakizueenez, aurtengo ikasturtean Badena eta eztena izeneko atala gidatu dute Eneko lurrarmendi 'Tintok' eta Mikel Lakastak. Historiari lotutako zenbait pasarte eta kontakizun dakartzkigute kolaborazio horretara, baina, beti, ezezagunak eta xelebreak diren zenbait datu ere ekarriz. Hilabete honetan, gainera, eskualdeari

guztiz lotua dagoen kolaborazioa egin digute: Zazpiak bat izena jarri diogu kapituluari. Baina, adi, eskualdeko zazpiak bat: Imotz, Basaburua, Ultzama, Atetz, Odieta, Anue eta Lantz. Zazpi bailaretako pertsona esanguratsuak, istorio ezezagunak eta kontuak ekarri dizkigute. Ez galdu!

QR Badena eta Eztena ▶



Azken hilabete honetako elkarrizketen artean, Imotzen abian den Auzozaintza proiektuaren ingurukoa eta Baztango BRT errugbi taldeak egiten ari diren atelekien ingurukoak nabarmenduko genituzke. Horiek guztiak amezti.eus webguneko Esan Erran irratia botoitxoan klik eginda topatuko dituzue.

Eta, udarako gomendatuko genizkizuekeen podkasten artean, ostiraletako gure bi izarrak dituzue: Egun Ero Kantuz saioa batetik, eta Memoriaren txokoa izeneko irratsaioa, bestetik. Hilabete honetan, Saioa Otxandorena Satrustegi lizasoarra izan dugu Egun Ero Kantuz-eko gonbidatu





berezia. Memoriaren txokoa, berriz, elkarrengandik oso desberdinak diren bi gai ekarri ditugu maiztean: Vladimir Il'lich Leninen jaiotza, eta Joxepa Antoni Aranberri 'Xenpelar' bertsolariak neskazarren defentsan bertsoak idatzi zituenekoa.

Hilabete honetakoak horiek izan badira ere, jakin, urte osoan 13 saio grabatu ditugula, aste horretako efemeride bat hartu eta sakonean landuz. Guztiak dituzue webguneko 'Memoriaren txokoa' atalean entzungai: Uruguaiako Tupamaroak, Itoizko urtegiaren kontrako borroka, Orson Wellesen mundu gerra, Prestigen hondamendia, Ramon Sampedro eta eutanasia eskubidea, Iruñeko Katakarak liburu-dendaren sorrera, Angela Davis, Remigia Etxarren funanbulista... eta askoz gehiago. Gai anitzak eta interesgarriak lantzeko aukera eman digu irratsaio honek.

QR
Memoriaren Txokoa ▶




Irratiari dagokionez, amaitzeko, gogoraraziko dizuegu Tipul Menierek gidatutako saio berri bat ere abian dela Esan Erranen: Broma gutxi. Bi astean behin, ostegunetan, arratsaldeko 19:00etatik 20:00ak bitartean izaten da zuzenekoa, eta, errepikapena, berriz, larunbatetan 20:00etatik 21:00etara. Ganbarak pilatuak dituen hardcore eta punk binilo zaharrak zuzenean jartzen dizkigu Tipulek. Momentuz, lau saio egin ditu, eta guztiak dituzue entzungai webgunean.

QR Broma Gutxi ▶



Bestetik, badakizue azken urteotako Pulunpe aldizkari guztiak ere irakurgai dituzuela amezti.eus-en, PDF formatuan. Eta, adi... udan herrietako festak ere iritsiko baitira, eta, jakin badakizue, gure eskualde zabal honetan ez direla inoiz amaitzen... Horien eta bestelako ekimenen berri ematen segituko dugu gure Agenda atalean. Ez galdu!



Pulunpe aldizkaria PDFn

Artikulu hau paperezko aldizkarian irakurtzen ari bazara, jakin ezazu, Pulunpe aldizkari hau eta azken urteotan argitaratu direnak irakurgai dituzuela amezti.eus atarian ere. Gainera, zuen etxetara iritsi baino lehen igotzen dugu online bertsioa! Hemen beheko QRan sartuta topatuko dituzue orain arte igo ditugunak.

Zorionak Zorionak !



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Uda badator!

Udara hurbiltzen ari gara eta ekainaren 17tik aurrera liburutegiaren ordutegia goizekoa izango da: 10:30etik 13:30era. Bestalde, kultur ostiraletan atsedena hartuko dugu, irailera arte, baina ekainean oraindik jarduera interesgarriez gozatzeko aukera izanen dugu.

Ekainaren 7an, adibidez, **Amaia Iraizozek**, NUPeko irakasle eta ikerlariak, oso hitzaldi interesgarria eskainiko digu. Aritzuko alaba da Amaia eta Nevadako Unibertsitatean lau urte eta erdi Ameriketako emigrazioak Nafarroan izan zituen ondorioak aztertzen aritu da. Gaiaren inguruan egindako tesiaren laburpena aurkeztuko digu.

Hurrengo ostiralean, hilaren 14an, laster zeresan handia emango duela ziur gauden artista gazte bat izango dugu gurekin: **Aaron Romero**, bere abestiekin akustikoan kontzertua eskainiko diguna. Aaron, gaztea izan arren, hainbataldizigodaeszenatokietara milaka lagunaren aurrean, bere aita Kutxi Romerorekin batera Marea rock talde ezagunaren biretan. Eta Larraintzarko gure areto txikia ere ezagutzen du, Luter, Kutxi bera, Erel eta Kuñi raperoekin batera

aritu baita bertan. Zalantzarik gabe, une egokia izanen da etorkizun handia duen Nafarroako musikariaren talentuaz gozatzeko. Hori gutxi balitz, Aaronek esan digu musikari handiek (nor izango dira?) lagunduko diotela egun horretan.

Gainera, ikastaroari amaiera emateko, **Axolagabe**, bailarako antzerki taldeak, emanaldi bikoitza eskainiko digu ostiralean, hilaren 21ean, eta larunbatean, hilaren 22an. Oraingoan taularatuko duten antzezlanak "¡Sálvese quien pueda!" izanen da, oso komedia zoroa. Bertan, Juan Garcia izeneko taxilari batek bere bizitza pikutara doala ikusten du, ospitalera egindako bisita batengatik, istripu baten ondorioz. Hiru funtzio eskainiko dituzte: ekainaren 21ean 20:00etan, ostiralarekin, eta, ekainaren 22an, 17:30ean eta 20:00etan.



Horretaz guztiaz aparte, hilabete osoan Lizasoko artista baten obra ikusteko aukera izanen dugu Larraintzarko Bentan. Virginia Domeño izanen da ekaineko erakusketaren protagonista, Arte-eskola sortzeko prozesuen lan batekin. Hau da erakusketaren helburua, Virginiaren esanetan: esperimenduaren bidez ikastea, hainbat teknikarekin, eta imaginario eta estilo pertsonal bat sortzen laguntzeko trebetasunak eskuratzea. Zentzu estetiko eta kritikoa hezteko.


Udako irakurgaiak

Uda garai ona da irakurtzeko, beraz, gure liburutegian ditugun edo laster izanen ditugun liburu batzuk gomendatu nahi ditugu. Adibidez, une honetan euskara irakurtzeko klubean irakurtzen ari garena: **Animalia domestikoak**,





idazle iruindar gazte baten kontakizun bilduma: **Esti Martinezena**. Hau da kontrazalak obra honi buruz dioena:



“Era askotakoak dira gure etxeetan habia egiten duten sentipenak, maskotak bezain eguneroko bihurtu arte: izan daiteke urtetako errutinak dakarren asperdura, izan daiteke muturtuta daudenen haserrea, edo mundu paraleloetan bizi direnen inkomunikazioa, izan daiteke bizilagunarenganako inbidia, noizbait bizikide izan zenaren oroimena, edo ihes egin nahi geniokeenaren beldurra... Esti Martinezen lehen ipuin bilduma honek leku hurbilak eta giro intimoak erakusten dizkigu, irakurleak erraz identifikatzeko modukoak baina aldi berean esanezinaren misterioa dutenak, inork irekitzen ez duen ate baten ostean gordetzen den horren antzera. Istorio eder eta sotilak, panpina-etxe baten moduan erreal bezain ametsezkoak, soberako hitzik gabeko idazkera fin, soil eta arin batez idatziak”.

Bestalde, zorionekoak gara, Ultzamako autore batek, **Iñigo Astizek**, bere lehen kontakizun-liburua argitaratu duelako: **Monogamoak**. Bertan, gainera, ezagutuko ditugun zenbait gai jorratzen ditu, hala nola Lizasoko komuna, liburuaren sinopsian irakurri ahal dugunez:

“Opari osagabe baten oroitzapena, hildakoen ilarak eta hiltzaileenak, Lizasoko komuna eta haren itzalean hartutako bainua, biribilguneen utopikoak, gazte bat pintadak garbitzen, andre bat katu baten marruen eta amaren azken egunen artean, sasoiz kanpoko norbaiten itzulera, infinitura multiplikaturako tximinoak, balizko pailazo bat, txanpon-makinen zarata eta hondoko konplizitatea, une batez den-dena geratu uste izan zuen isiltasun bat. Giroz, garaiz eta tonuz, eremu zabal bat bildu du Iñigo Astizek bere lehen narrazio bilduman. Aro bakoitzean jendeak elkarri eusteko botatzen dituen

sokez ari da, komunikazioaz eta haren faltaz, eraikuntza historiko, politiko, kulturalen alde makurraz zein absurdoaz. Argitasunez eta ironiaz, soiltasunez eta saturazioz, bizidun ororen orekari urratsak datoz kontakizunotan”.

Azkenik, txikienendako gomendio bat ere ekarriko dugu, irakurle edo aurre-irakurle gazteenen artean oso harrera ona izaten ari den bilduma bateko liburu berri bat, Pintto: **Pintto eta bluesa**. Itsasontzian bidaia luzea egin ondoren New Orleansera, bluesaren sorlekura helduko da Pintto. Inauterien prestaketan murgilduta dabilen hiria da New Orleans, eta, bertan, musikariak eta artistak ezagutzeko aukera izango du gure Pinttok!

Liburuak 16 soinu edo abesti ditu, obra dibertigarri honetan zehar banatutako marrazki txiki batzuk sakatzuz soilik entzun daitezkeenak.



2024ko apirila

2024ko apirilean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Sortzeak:

ULTZAMA Zenotz

Olaia Mondragon Iraizotz, **Zenozko Palazioko bordan** sortu zen apirilaren 23an. Gurasoak: Orein eta Maika.



▲ Olaia etorri zaigu Zenotza

“ Zorionak gurasoei ”

Ezkontzak:

Dakigula, ez dugu ezkontzarik izan apiril honetan.

Heriotzak:

ANUE Aritzu

Francisco Urteaga laben, **Uztarriren etxeko** nagusia, apirilaren 22an hil zen, 85 urtetan.



▲ Francisco Urteaga

BASABURUA Beruete

Gregorio Arano Lanpreabe, **Mittoneko** semea, apirilaren 13an hil zen 62 urtetan.



▲ Gregorio Arano Lanpreabe

Maria Teresa Elizalde Intsausti, **Iriarteko** etxekoandrea, apirilaren 14an hil zen 94 urtetan.



▲ Mari Tere Elizalde

ULTZAMA Iraizotz

Agustin Satrustegi Narbaetz, **Dorreko** nagusia, apirilaren 13an hil zen, 95 urtetan.



▲ Agustin bere arreba Josefina zenarekin

“ Beti izanen zaituztegu gogoan ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





pulunpe

amezti 

Egun Ero irratsaioak oporrak hartu ditu, baina, gogoratu, elkarrizketak eta kolaborazioak, noiznahi entzuteko:
Amezti. eus! Baita udan gertatzen denaren berri izateko!

Eta, ostegunetan,
bi astean behin,
Broma gutxi
irratsaioa 19:00etan,
Tipule Menierrekin!

